

Fontes

Linguae Vasconum

50 urte. Ekarpen berriak
euskararen ikerketari

Nuevas aportaciones al
estudio de la lengua vasca

Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren didaktikan

LEIRE DIAZ DE GERE.U LASAGA,
ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI,
LUIS MARI LARRINGAN ARANZABAL

Argitaratzaileak / Editores

Ekaitz Santazilia

Dorota Krajewska

Eneko Zuloaga

Borja Ariztimuño



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren didaktikan

Representation and use of textual genres in teaching oral language

LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

leire.diaz@ehu.eus

ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

itziar.idiazabal@ehu.eus

LUIS MARI LARRINGAN ARANZABAL

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU

luismaria.larringan@ehu.eus

JASOA: 2019/07/31 | BEHIN-BEHINEAN ONARTUA: 2019/09/06 | BEHIN BETIKO ONARTUA: 2019/12/05

Lan hau Eusko Jaurlaritzaren IT983-16-GIC 15/129 ikertalde egonkortuaren laguntzarekin egin da.

LABURPENA

Lan honetan testu-generoaren balio didaktikoa arakutzen da, eta ahozko euskararen irakaskuntzan dituen erronkak eta baliabideak azpimarratzen dira. Curriculum eta material guztietan testuak, ahozkoak nahiz idatzizkoak, ekoizten irakastea proposatzen bada ere, *testu-genero* nozioa literatura-eremuan aurkitzen da egonkortuen. Halaber, ahozko komunikazioaren edukietan *generoaren* nozioa galtzen da, oro har. Ordea, testu-generoak, ‘moldea’, ‘eredua’ esan nahi du, eta hizkuntzaren edozein ekoizpen zentzudunen ezaugarria da. Ahozkoan ere testu-generoa erreminta didaktiko bezala erabiltzeko zenbait iradokizun biltzen ahalagindu gara; izan ere, irakasleari ziurtasuna ematen dio testuen aniztasun mugagabearen erreferentzia bezala hartzeko, eta fidagarritasunarekin irakatsi nahiz ebaluatu egin ahal izateko.

Gako-hitzak: testu-generoa; testua; didaktika; ahozkoa; euskara.

ABSTRACT

The aim of this work is to assess the didactic value of the concept of the text genre and to highlight its challenges in teaching oral language. Both in the curriculum and in all teaching materials, texts are proposed as teaching objects, but text genre is a not a consolidated term. We tried to gather several proposals that use the text genre as a didactic tool to teach oral language because, in fact, it is a resource that offers the teacher the certainty to take it as a reference among the infinite text diversity, and to teach and evaluate it with reliability.

Keywords: text-genre; text; didactics; oral language; Basque.

1. Sarrera

Hizkuntzaren didaktika edo irakaskuntza da gure gogoetaren helburua. Gizakia berez da izaki berritsua. Gizakiak duen ezaugarri nagusietakoa da mintzaira. Halere, hizkuntzen irakaskuntza da munduan gehien zabaldutako jarduera hezkuntzaren alorrean. Gurean, euskara irakasteak bigarren hizkuntza bezala irakastea esan nahi du nagusiki, eta euskara hizkuntza gutxiratua izanik, zenbait zailtasuni aurre egin beharra dakar; nagusiki, ikasleen gehiengoa euskara eskolan ikasitakoa denez, hiztun berri sentitzen dela, eta askotan, ahozkoa nahikoa ez menderatzeak erabileran murrizketa larria eragiten duela, hain zuzen. Eskolan, ahozko gaitasun baliagarriak/erabilgarriak ikastea ezinbestekoa dugu. Faktore soziolinguistikoek zeresan handia duten arren, lan honetan, ahozko hizkuntzaren didaktikak dituen erronken artean (Idiazabal, 2013; Ortega, 2017) alderdi txiki baina funtsezko bati helduko diogu: ahozkoaren didaktikan testu-generoaren bidezko irakaskuntzak dituen abantailei eta garrantziari.

Hizkuntzen irakaskuntzan badira hara-honak, kasketaldiak eta modak, muturretik muturrera joateak. Gure planteamendua ez dator ezer ordezkatzera. Nolanahi ere, planteamendu berezia da, eta aprobetxagarria. Seguruenik, ez da denetarako hitza, ez da oro-senda proiektu edo planteamendu magikoa, baina aintzat hartzekoa da jaso dugun gogoeta testuaz eta testu-generoetan oinarritutako irakaskuntzaz.

Egun, curriculum guztiek eskatzen dute maila pertsonal, akademiko eta sozialeko *testuak* ekoizten irakastea, ahozkoak nahiz idatzizkoak. Zein ahozko testu-generori heldu behar zaio eskolan? Zein ahozko objektu irakasgarri zehatzi? Gaia sakondu duen orok badaki erronkez betetako eremua dugula honakoa.

Hasteko, 2. atalean testuaz eta testu-generoaz eta bi horien arteko erlazioaz jardungo dugu. Ikusiko dugu *generoaren* nozioa erabiltzea ez dela gauza berria, baina ez eta huskeria ere. Tradizio luzea duen arren, nozio abstraktua da eta hainbat adiera hartzen ditu. Ondoren, 3. atalean gure nozio bi hauei curriculumetan eta zenbait proposamen didaktikotan zein leku eman zaien ikusiko dugu. Bukatzeko, zenbait ondorio aurkeztuko ditugu.

2. Testua eta testu-generoa

Hurrenez hurren, bi nozio horien arteko harremanak eta bereizgarriak jorratuko ditugu lehen atal honetan, betiere Interakzionismo Sozio Diskurtsiboaren (ISD) (Bronckart, 1996) ikuspegia ardatz hartuta.

2.1. Testua

Testu terminoa ez da berria. Askotan azaltzen da, baina gure eginkizunerako, modu zehatzagoan zedarritu beharra dago. Ezina da hizkuntzara bertara iristea; berezko hizkuntzako enuntziatu batzuetara bakarrik heldu ahal gara, hots, testuetara. Izan ere, hiztunak mintzatzerakoan testuak ekoizten ditu. Testua mintzairaren materializazio empirikoa da. Komunikazio-jarduerak praktika linguistikoetan konkretatzen dira, testu baten forma semiotikoa hartuz. Testua unitate empirikoa da, linguistikoa eta soziala, giza jarduera baten ondorio, jarduera horretarako moldatua.

Giza jarduerak aldatu egiten dira, betiere testuinguru sozio-historiko jakin batzuen eraginpean, eta asmo eta premia batzuen ildoei jarraituz. Testuak hizkuntz praktikatzeko sozio-linguistikoa dira, historian zehar kokatuak. Praktika linguistikoa bakoitza jarduera-esparru bati lotua dago; eta hiztunak eskuragarri ditu zenbait testu-genero propioago dagozkionak, hau da, pertinenteagoak: «[...] ce sont globalement les propriétés de l'activité langagière dans son rapport à l'activité ordinaire [sociale], qui déterminent les formes de réalisation effective de la langue qui constituent les différents genres de textes» (Bronckart, 2005, 154. or.).

Laburbilduz, testua hizkuntz entitate edo produktu materiala da, empirikoa. Testua, baina, ez da hizkuntz fenomeno edo gertakari purua, garbia, huts-hutsa, konplexua baizik. Esan nahi da ez dela kategoria eskusiboki linguistikoa; ez da unitate linguistikoa, komunikazioaren esparrukoa baizik. Ez dago termino linguistikoetan deskribatzerik.

Testuak ez du tamainarekin zerikusirik, ahozkoa zein idatzia izan daiteke, komunikazio-egoera jakin bati lotua, antolatua, xede-helburuduna eta betiere solaskidearengan eragina izateko bideratua.

Testuak, komunikazio-unitateak izanik, ugariak eta guztiz bestelakoak izan daitezke. Gizartean existitzen diren testu-praktikak ez daude besterik gabe metatuak modu kaotikoan, modu organikoan eratuak baizik. Testuak produktu historikoak ere badira, historian zehar eginkizun jakin batzuk betetzeko gizataldeek sortuak.

2.2. Generoa

Nozio hau ere ez da berria. Antzinetatik dator *generoen* nozioaz baliatzea testu moldeak bereizteko, eta mendeetan zehar diziplina askotara zabaldu den nozio aldakorra da. Didaktikaren alorrean ere kontzeptu heterogeneoa dugu *testu-generoa* (Dupont, 2016, 19. or.).

Idatzizko ekoizpenak zenbait ezaugarriaren arabera sailkatzen dituen kritika literarioaren tradizioan aurkitzen dugu *genero* nozioa, baina egun erabilera arruntagoetako testu-ekoizpenen moldeak izendatzeko ere baliatzen da (Charaudeau & Maingueneau, 2005, 285. or.). Irizpide ezberdinetatik abiatu izan da generoen arteko banaketa (osaera, forma, edukiak, testuen egituraketa eta ezaugarri linguistikoa, etab.), eta testu bakar

batek irizpide ezberdinak bete ditzakeenez, genero-sailkapenak beti izan dira korapilatsu eta eztabaidagarriak.

Idatzizko generoak izan dira gehienbat deskribapenen, sailkapenen eta baita irakaspenen abialeku nagusi ere. Ahozkoan, berankorragoak edo urriagoak izan dira deskribatze- edota sailkapen-ahaleginak. Mintzaira-ekintzarekiko deskontestualizazioari eta deserdiratzeari esker idatzizko adierazpidean gertatu da testua behagarriagoa. Horixe izan da lagungarri idatzizko generoen identifikaziorako, deskribapenak egonkortzeko orduan. Geroago, askoz geroago, XX. mendearen azken hamarkadetan etorri dira ahozko testuen eta generoen deskribapenak.

Testu ez-literarioen edo ahozko mintzaira-ekintza arrunten azterketaren kasuan, korrante edo autore ezberdinek hartutako ikuspuntu enuntziatibo, testual edota komunikatiboak ondorio bezala izan du genero nozioa ezberdin ulertzea. Hortaz, hartzen diren erreferentzia teorikoen arabera *testu-molde/tipo/mota*, *testu-genero*, *diskurtso-genero* bezalako terminoak aurki ditzakegu mintzaira-ekintza bertuetan sortzen diren testuak izendatzeko (Larringan, 1998, 63. or.).

ISDri jarraikiz, darabilgun terminoa *testu-generoa* da. Guretzat, generoa testuaren ezaugarri nagusia da. *Generoa* esatean hauxe aipatu nahi da: helburua duen eta gizartean eraten den *komunikazio-gertaera*. Gertaera horiek genero (hizkuntza-praktikatze eta praktikaldi) desberdinak dira, komunikazioan eginkizun desberdinak betetzen dituztenak, eta hiztunak eskura izan beharrekoak.

Hizkuntzaren praktikatze horiek eratu dute sistema bera, egoeretan eta belaunaldietan zehar gizataldeak dituen komunikazio-premiei erantzuteko. Norbanakoa horrela formatzen da gizartearen barruan, generoen bidez giza ekintzetan behar diren mintzairaren baliabideak eskuratuz. Hizkuntzaren antolaera-premia horiek betetzeko eginkizunari zor zaizkio. Jakina, generoak kultura eta gizarteen mendeko dira, eta genero berriak ari dira sortzen (hala nola, txioak, *podcastak*) eta berriztatzen, aldatzen, egokitzen etengabe.

Hurrengo aipua argigarriak dira. Bajtinen arabera, *genero diskurtsibo* deitzen zituen horiek ulermena eta ekoizpena gidatzen dute, eta hortik irakaskuntzarako daukaten garrantzia:

Aprendemos a plasmar nuestro discurso en formas genéricas, y al oír el discurso ajeno, adivinamos su género desde las primeras palabras, calculamos su aproximado volumen (o la extensión aproximada de la totalidad discursiva), su determinada composición, prevemos su final, o sea que desde el principio percibimos la totalidad discursiva que posteriormente se especifica en el proceso del discurso. Si no existieran los géneros discursivos y si no los domináramos, si tuviéramos que irlos creando cada vez dentro del proceso discursivo, libremente y por primera vez cada enunciado, la comunicación discursiva habría sido casi imposible (Bajtin, 1982, 262. or.).

Edota beste hau:

En cualquier esfera existen y se aplican sus propios géneros, que responden a las condiciones específicas de una esfera dada [...]. Una función determinada (científica,

técnica, periodística, oficial, cotidiana) y unas condiciones determinadas, específicas para cada esfera de la comunicación discursiva, generan determinados géneros, es decir, unos tipos temáticos, composicionales y estilísticos de enunciados determinados y relativamente estables (Bajtin, 1982, 254. or.).

Testu-generoa hautatzean, hiztunak intertestura jo beharko du, eta aztertu beharko du testuak asma daitekeen eredurik duen ala ez duen, eta eredu horiek noraino ezagutzen dituen; erabakiko du horietako zein zaion egokiena, zein testu-eredu duen eskuragarri, halakoetan zein molde den ohikoena. Tradiziora joz gero, hiztunak eredu edo molde bat jaso ahal du, baina baita egokitu ere, berriztatu, erabat berria sortu...

Generoa malgua eta flexiblea da, ez da mugapena, bidelaguna baizik. Sorkuntzarako abiapuntu dugu, dela generoaren barruan aritzerako orduan, dela genero berriak sortzeko orduan ere; betiere, beharrezkoa (Dolz & Abouzaïd, 2015, 3. or.). Oinarri, abiapuntu, ardatz, erregulatzailerik, orientabide bilakatzen zaigu generoa. Hiztunak mugimendu bikoitza egiten duela esaten dugu: batetik, testu-molde bat hautatzen du, egokien iruditzen zaiona; bigarrenik, testu-moldea lagun duelarik, ekintzari dagozkion moldaera eta ezaugarri indibidualak hartaratu ditu (Bronckart, 1996). Nolanahi ere, eta irakaskuntzari begira, generoak *moldea* esan nahi du, irakasleari ziurtasuna emango dion erreferentzia; irakasteko, eta irakatsitakoa ebaluatzeko, didaktika-ingeniaritzarako baliabidea (Garcia-Azkoaga & Idiazabal, 2015, 4. or.).

3. Testu-generoa: (ahozko) hizkuntzaren didaktikan baliabide nagusia

Bigarren atal honetan, lehenik, generoa didaktikarako erremintatzat proposatzen dela gogoratuko dugu. Ondoren, *testu-genero* nozioak curriculumetan zein leku eta proposamen aurkitzen duen aztertuko dugu. Azkenik, generoaren ikuspegiaren bitartez ahozkoa objektu irakasgarri bihurtzeaz jardungo dugu.

3.1. Testu-generoa didaktikarako erraminta

Ahozkoaren irakaskuntzan, idatzian bezala, testu-generoak ezinbesteko lanabesak dira. Hiztunak erraz identifika ditzake egunerokoan agertzen diren generoak, intuitiboki bada ere: irrati-elkarrizketa, eguraldiaren iragarpena, irakasle baten lezioa, lagunarteko solasa, lanpostu baterako elkarrizketa... Besterik da eskolako testuinguruari lotuta gertatzen dena. Irakasleek komunikazio-ikuspegi hartzeko zailtasunik erakusten ez duten arren, ekintza komunikatibo jakin bati lotutako testu-generoa irakasgarri bihurtzeko orduan zailtasun nagusi hauek erakusten dituzte: generoaren eta haren ezaugarrien identifikazioa, irakaspenen sekuentziazioa, eta ikasleen ekoizpenen ebaluazioa egitea (Garcia-Azkoaga & Diaz de Gereñu, 2012; Anakabe, Mielgo & Ocio, 2013; Bronckart, 2013; Gagnon & Dolz, 2016; Garcia-Azkoaga & Manterola, 2016).

Dolz-Mestrek eta Schneuwlyk (1998, 65. or.) esan bezala, testu-generoak mega-erremintak dira. Hitz egiteko behar-beharrezko baliabideak. Nolabait, egoera jakin

batean ekin/jardun ahal izateko tresnak. Eta hitz egiten ikastea tresna horien erabilera menderatzea da. Hizkuntza-egoera ezberdinetan berba egin ahal izateko, egoerari dagokion generoa eskuratu beharra dago. Generoa tresna bezala definitzen dute aipatu egileek eta generotasun hori aztertze hiru alderdi hartzen dituzte kontuan: edukia, komunikazio-egitura eta unitate linguistikoen egituratze berezitua.

Elementu batzuek generotasuna bereizteko aukera gutxi ematen dute. Beste batzuk hasieratik bertatik dira espezifikoak edo pertinentek. Generoaren markatzaile (Coutinho & Miranda, 2009, 42. or.) esanguratsuak ditugu, adibidez, testu-hasierak. Testu-genero askotan hasieratik bertatik markatzen da generoa (*Pilotazaleok, gabon! Iruñetik zuzen zuzenean gatozkizue; Kaixo! Gabon deigula, ikus-entzuleok! Eguraldi kaskarra izan dugu gaur...; Aurkeztera goazen lanaren helburua...; Egun on eta ongi etorriak! Gaurko ekitaldian...*), eta jakina, markatzaile horiek maiz ez-berbazko elementuak ere izan ohi dira.

Idatziz jasotako ahozko tradiziozko ipuinetan, adibidez, oso espezifikoak diren *Ba omen zen, Behin batean, Bazen* aurkitzen ditugu, baina ahozko konta-saioretan nekez erabiltzen dira *behin batean* bezalako testu-antolatzaileak (Diaz de Gereñu, 2016, 148. or.), are gutxiago helduak entzule direnean. Denak narrazio izanda ere, genero berekoak ez diren seinale.

Generoak, beraz, testuan agertuko diren egiturazko nahiz (ez-)berbazko unitateak baldintzatzen ditu, dela generoaren ezaugarriak estu jarraitzeko, dela aldentzeko (Bronckart, 1996, 105. or.).

Mirandak eta Coutinhok (2015, 25. or.) diotenez, zaila izan arren, posible da generoaren markatzaileak zedarritzea. Halaber, generoaren markak lantzerakoan, zenbait unitate linguistiko errepikakorrek izanda, haien ezaugarritzea meta-ezagutzarako (adibidez zenbait gramatika-ezaugarri lantzeko) didaktikan lan emankorra izan daitekeela baieztatzen dute. Genero arteko berezitasunak, bestalde, ez datoz soilik testuingurutik (kanpoaldetik), ez eta soilik elementu linguistikoetatik ere (barnealdetik); faktore psiko-sozialen eta linguistikoen elkarreragina kontuan hartzea beharrezkoa da generoa objektu didaktiko bezala hartzen denean (Miranda & Coutinho, 2015, 25. or.). Ondorioz, testuak beren testuinguru komunikatiboan eta linguistikoan landu behar dira. Horrek eskatzen du, egile hauen arabera, generoaren didaktikan ondoko alderdien arteko harremana kontuan hartzea, artikulatzea eta objektu didaktiko bihurtzea: *jarduera* (kolektiboa/mintzairazkoa) – *kontestua* – (ekintza-egoera) – *generoa* – *testua* – *hizkuntza* harremana.

3.2. Testu-generoaren erabilera hizkuntzaren irakaskuntza-curriculumetan

Testua irakaskuntzaren unitate nagusi bezala hartzea (nahikoa) onarturik dagoen printzipioa da. Hizkuntzaren izaera komunikatiboarekin batera dator onarpen hau. Aldiz, nahikoa berria da testu-generoa oinarri hartzen duen hizkuntzen didaktika. Suitzan, frantsesaren irakaskuntzan, alegia *lehen* edo *ama-hizkuntzaren irakaskuntza* deitzen den horretan, 1979. urtea hartzen du Bulea-Bronckartek (2015, 67. or.) abiapuntu. Urte horretan argitaratu zen *Maîtrise du français* liburuan oinarritzen da. Bertan ageri da testu-generoa hizkuntzaren balio komunikatiboan oinarritzeko pro-

posamen argia. Bestalde, soilik literaturan oinarritutako testuak gainditu beharra edo irakas-moldeak osatu beharra ere azpimarratzen da bertan: «L'ancrage de l'apprentissage du français dans la production et la compréhension de textes divers, socialement et pédagogiquement pertinents» (Bulea, *apud* Bronckart, 2015, 68. or.). Geroztik, Suitzan bezala beste leku batzuetan ere, beti-beti ez da testu-generoa kontuan izan, edota esanak eta izanak ez dira erabat bat etorri, egile honek ondo aztertzen duen moduan.

Euskararen sistema didaktikoan eragiten duten curriculum eta programetan arreta jartzen badugu, ikusiko dugu ahozkoan *testu-genero* nozioak zailtasunak dituela egonkortzeko (Diaz de Gereñu, 2017, 111. or.), nahiz eta ahozkoa objektu autonomotzat hartzen den. Alde nabarmenak ageri dira, *generoaren* nozioaren lekuari dagokionez, eduki multzoen arabera.

Heziberri 236/2015 Dekretuaren II. eranskinean, Hizkuntza eta Literatura komunikaziorako konpetentziako DBHko etapaz etapako eduki-multzoetan literaturaren esparruan aurkituko dugu (4. Eduki-multzoa) *testu-genero* nozioa modu sistematikoan erabilia: helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideetan. Beste eduki-multzoetan (ahozkoa, idatzizkoa, hizkuntzaren gogoeta, gogoeta soziolinguistikoa) *testu-generoa* agertu agertzen da, baina ez literatura-arloan bezain modu sistematikoan. Dena den, aipatu beharra dago agerraldi gehiago duela *genero* nozioak, oro har, etapako helburuetan eta ebaluazio-irizpideetan (236/2015 Dekretua, 182-190. or.). Heziberrin *testu*, *testu-mota* (narraziozko, instrukziozko, argudiozko... erreferentzia eginez gehienetan), *diskurtsoak*, *interakzioa*, *diskurtso-egoerak*, *komunikazio-egoerak* dira nozio arruntenak.

4. ziklorako frantses-programetan (Bulletin officiel 30, 26/7/2018) ere ikus daiteke *generoa* aipatzea sistematikoa dela literatura-edukietan, baina ahozko komunikazioan nahiago izaten da ahozkoaren xedapenetan *parole*, *discours oraux*, *échanges oraux*... erabili ahozkoaren objektu irakasgarriak zedarritzeko. Programa horietan ere, dena den, besteetan bezala, nozioa aurkitu, aurkitzen dugu: «L'enseignement de l'oral au cycle 4 conduit les élèves à entrer davantage dans les genres codifiés de l'oral en les pratiquant et en identifiant les caractéristiques» (Bulletin officiel 30, 26/7/2018, 13. or.).

Nafarroako curriculumak DBHko D ereduko Euskal Hizkuntza eta Literaturarako ezartzen duenari (24/2015 Foru Dekretua) erreparatuz, antzekoa ikusten da: testu-generoaren aipamen sistematikoena, oraingo honetan ere, hezkuntza literarioko atalean egiten da.

Ahozko gaitasunen edukien multzoan *testu* eta *diskurtso* nozioak kopuruz antzera erabiltzen dira, baina *testu-genero* nozioa ez da agertzen. Aipatzen dira, hala ere, hizkuntza-jarduera edo testu-genero zehatzak eduki, ebaluazio-irizpide nahiz estandarretan: *jendaurrean hitz egin*; *bat-bateko elkarrizketa*; *ahozko praktikak*; *komunikazio-trukea*; *edozein ahozko komunikaziotan*, *ahozko aurkezpenak*; *hitzartzea gelan*; *hizkuntzaren maila formala*; *eztabaida*, *mahai-ingurua*; *ahozko elkarrizketa*; *antzezpena*. Genero sozialak dira batzuk, beste batzuek askotariko eskolako elkartrukeei egiten diete erreferentzia (*eskolako eztabaida*, adibidez), baina eskolako egoeretako erregulazio-genero informalagoak ere badira; azkenik, ekintza komunikatiboa interpretatzeko lausoagoak dira *jendaurrean hitz egin* eta *bat-bateko elkarrizketa*, adibidez.

Nafarroako curriculumeko idatzizko gaitasunen atalean *testu* nozioa gailentzen da eta *diskurtso* desagertzen. *Testu-ereduak* aipatzen dira, eta *testu-genero* bezala uler litezke, baina baita eskolan erabiltzen diren testu enpirikoen eredu gisa ere. Edonola ere, *testu-generoa* nozioa ez da aipatzen.

Hizkuntzaren ezagutza-atalean, *testua*, *diskurtsoa* eta kopuru berean *erregistroa* (multzo honetan baino ez da agertzen azken hau) agertzen dira. *Testu-generoaren* agerpenik ez dago.

Laburtuz, curriculumek hizkuntzaren erabilera testu/diskurtso/genero ugari eta komunikaziorako proposak diren jarduerak jasotzen dituzten arren, terminologiaren erabilera berezitua aurkitzen dugu konpetentzia/gaitasunen atalen arabera. Agian, testuen eta diskurtso-analisen korrante ezberdinen eraginez, edo baita hizkuntzen didaktikaren diziplinaren barruan objektu didaktikoa bera eraikitzeke dauden zailtasunengatik ere (Dolz, Gagnon & Mosquera, 2009). Gu aztertzen ari garen generotasunean, ez izena, ez nozioa apenas ageri diren modu sistematikoan, baina jakina, irakasleen formakuntzan eta materialen sorkuntzan posible da erabilera egokiak ere aurkitzea, Nafarroako hezkuntza-proiektuetan egiten den bezala (Olasagarre & Mugertza, 2015).

Dena den, sistematizazio falta gorabehera, aipatu curriculum guztietako ebaluazio-irizpideetan *testu-genero* nozioa agertzeak (edo haren faltan genero zehatzak) metodologikoki duen pisu didaktikoa erakusten du.

3.3. Testu-generoa ahozkoa lantzeko ardatz bezala hartzen duten zenbait proposamen didaktiko

Ondo dakigu ikasgai edo gaitasun bat curriculumean agertzeak ez duela ziurtatzen haren didaktizazioa edo irakaskuntza egokia. Ikusi dugu testu-generoa edo testua/diskurtsoa baliabide bezala nahikoa errotua dagoela eskolako testuinguruan eta curriculumetan; ikas-materialetan ere agertu agertzen da, baina badago zer zehaztua.

Didaktikaren alorrean generoaren kontzeptua heterogeneoa dela erakusten duten sailkapen franko ikusten ari gara egun (Martinez Mongay, 2004; Dupont, 2016; Zabala, 2018). Eskolan ahozkoak eginkizun asko betetzen ditu (Garcia-Azkoaga, 2016, 16-17. or.) eta diziplina, eginkizun eta sailkapen nolabait klasikotzat har dezakeguna, Dolz-Mestre eta Schneuwlyrena (1997, 90-91. or.) litzateke. Garbi adierazten da genero formaletara mugatzen direla; izan ere, frantsesaren irakaskuntzarako pentsatua dago, eta ez-formalak ez dakar gurean dakarren buruhaustea. Bestalde, Adamen (1992) sekuentzia-motak (narrazioa, deskribapena, azalpena, argudiatzea...) kontuan hartzen dira, eta literarioa nahiz ez-literarioa, edota eskolakoa eta soziala integratzeko bidea ematen dute. Jakina, ISD ikuspuntuari jarraituz azterketarako nahiz irakaskuntzarako baliabide zehatz bezala aurkezten da sailkapen hori.

Gurean, ildo horretatik esperientziak hedatuz joan dira. Olasagarreren eta Mugertzaren (2015) eta Zabalaren (2018) lanetan ahozkoa irakasteko irakasleen formakuntzarako euskararen erronka didaktiko eta soziolinguistikoak jaso dira luze eta zabal. Oro har, testu-generoen sailkapenari dagokionez, eta batez ere eginkizun edo saio didaktikoen diseinuan, Dolzen, Noverrazen eta Schneuwlyren (2001) proposamenetatik gertu ikus

ditzakegu, eta irakasleen formaziorako eskaintzen dituzten aukerak, sekuentzia didaktikoen bidetik emanak.

Chartrand, Émery-Bruneau eta Sénéchal (2015) espezialistek 50 generoren irudikapena edo karakterizazioa eskuragarri jarri dute, eta hau ere didaktikarako oso baliagarria izan daitekeela uste dugu. Hasteko, generoaren definizio hau ematen digute:

On peut définir le genre comme un ensemble de productions langagières orales ou écrites qui, dans une culture donnée, possèdent des caractéristiques communes d'ordre communicationnel, textuel, sémantique, grammatical, graphique ou visuel et/ou d'oralité, souples mais relativement stables dans le temps (Chartrand *et al.*, 2015, 3. or.).

Definizio horretan ageri da aipatu liburuan garatuko den karakterizaziorako eskema, testu-generoa erraz irudikatzen laguntzen duten ezaugarri-multzoa 5 ataletan egitura-tua. Dolz-Mestrerren eta Schneuwlyren (1996) kasuan aipatu ditugun ezaugarriak (non Bronckarten [2004] ISD edo testu-arkitekturaren parametroak ikus ditzakegun) hemen apur bat bestela daude antolatuta, baina, funtsean, testu-generoaren balio didaktikoa indartzeko eta bere azterketa/irakaskuntza errazteko intentzio eta ikusmolde oso antzekoa atzeman daiteke, modu trinkoan emana, eta oinarritzko azalpen, nozioen glosario eta adibide zehatzekin hornitua.

1. taula. Testu-generoaren irudikapenerako ezaugarriak
(Chartrand *et al.*, 2015, 6. or.-tik egokitua)

1. Ezaugarri komunikatiboak:

- . Helburua/intentzioa/xedea
- . Ekoizpenaren testuingurua: *lekua* eta *denbora* parametroak
- . Leku soziala edo erakundea (prentsa, eskola, administrazioa, politika, literatura...)
- . Enuntziatzailea (ekoizlearen irudikatzea), bakarra/plurala
- . Hartzailea(-ren irudikatzea), zehatza, bakarra, kolektiboa
- . Irudikatzen den mundua (konkretua/abstraktua, erreala/fikziozkoa...)
- . Gaia: kultura, kontsumoa, lana...

2. Ezaugarri testualak:

- . Testuaren plano/planifikazioa: sarrera, amaiera, bai/ez, testuaren tamainaren arabera...
- . Egituraren osagarriak: sekuentzia testual nagusiak/osagarriak...
- . Sistema enuntziatiboa: enuntziatio-markak (deiktikoak, adibidez). Testu eratorriak, modalizazio-markak...
- . Aditz-denboren sistema (orainaldia, lehenaldi burutuak / ez burutuak)
- . Baliabide diskurtsiboak (adibideak, tematizazioak, birformulazioak...)

3. Ezaugarri semantikoak:

- . Figurak
- . Alor semantikoak
- . Lexikoaren erabilera berezitua
- . Hiztegia, arrunta/espezifikoa...

4. Ezaugarri gramatikalak:

- . Zenbait perpausen erabilera pribilegiatua (kontzesio-perpausak, galderak...)
 - . Puntuazio neutroa edo espresiboa/markatua
-

5. Ezaugarri grafiko ez alfabetikoak (para-berbalak):

- Irudiak, izenburuak eta azpi-izenburuak, maketazio bereziak, apaingarriak...
-

5b. Generoen ahozotasunaren ezaugarriak:

- Prosodia: intonazioa, tonua, erritmoa, azentua...
 - Begiradak, keinuak, imintzioak, posturak
 - Bat-batekoa den ekoizpena edo ez, elkartrukatzea dagoen edo ez, zuzenean emana edo diferitua den...
 - Hondoko edo gibleko soinua/zarata
-

Egia da ahozko testu-generoak ezaugarritzeko taula honetan ageri den 5b puntua apur bat mugatua dela; izan ere, ahozkoak, generoz genero, elementu paraberbaez gain elementu diskurtsibo eta gramatikalak ere bereziak ditu. Jakina, Chartrand *et al.*-ek ez dute euskararen didaktikan behar den egokitzapena kontuan hartzen. Ez bigarren hizkuntza bezala landu beharra, ez derrigorrez elebitasunean/eleaniztasunean lan egin beharra, ezta hizkuntza gutxiratu baten irakaskuntzak eskatzen dituen beste hainbat baldintza ere.

Euskararen eremuan, badira zenbait baldintza derrigor kontuan hartu beharrekoak. Behin eta berriro aipatu dugu euskara-ikasle gehienentzat bigarren hizkuntza dela eta eskola dela ikasteko aukera ia bakarra ikasle horientzat. Ondorioz, ez dugu aski ahozko formala soilik ikasita. Ahozkoan eta idatzizkoan testu-generoen ezaugarriak ezagutzea beharrezkoa da irakaslearentzat, baina testu-generoaren irudikapen hori ez da erraza eta, gure artean behintzat ez da nahikoa lantzen.

4. Ondorioak

Ahozkoaren didaktika euskal irakasleen formaziorako eginkizun nagusia dela argi dago. Batez ere, ahozkoan gaitasun nahikorik eza delako euskararen erabilera urritzen duen arrazoi nagusietakoa (Ortega, Amorrortu, Goirigolzarri & Urla, 2016). Ahozko hizkuntzaren didaktika eginkizun konplexua dela ere behin eta berriro aipatzen da espezialisten lanetan. Gurean ere premia horren jakitun garela esan daiteke. Ikusi dugu curriculum guztietan ageri dela ahozkoa irakatsi beharra, ahozko gaitasun komunikatiboak garatu beharra. Nola egin asmatzea beste kontu bat da. Justifikazio ez teoriko, ez esperimentalik gabeko aipamen/iritzi/proposamenak ere nahikoa garatuak daude. Hala nola, «Ahozko hizkuntzan gaitasuna izatea jariakortasunez, egokitasunez, adierazkortasunez eta zehaztasunez hitz egitea da» gisakoak. Jakina lau hitz *magiko* horietako bakoitzarekin bakoitzak nahi duena ulertzen du eta, ondorioz, irakaslea fidagarria den irizpiderik gabe geratzen da. Gauza bera esan dezakegu ahozkorako askotan aipatzen diren formala/informala edo euskalkia/estandarra dikotomiekin; aspalditik datorren eztabaida da (Larringan, 1993, 29. or.), eta erraz konpondu nahi dira gauzak: «eskolan formala eta batua, kalean, lagunartean, informala eta euskalkia». Baina hizkuntzaren irakaskuntzan, gauzak ondo egin nahi badira behintzat, ez dago soluzio sinplerik.

Gure lanean testu-generoa hartu dugu euskararen didaktikarako baliabide nagusi, eta testu-mota edo diskurtso-mota ere erabil genezakeen. Baina kontua ez da hitz bat edo bestea aukeratzea. Ikusi dugu curriculumetan *testu*, *diskurtso*, *komunikazio*, *interak-*

zio hitzek zentralitate handia dutela eta ahozkoa barra-barra proposatzen dela; berriz, testu-generoa modu sistematikoan batez ere literaturaren arlora mugatzen da, literatur kritikaren eta azterketen tradizioetik datorren joerari jarraituz.

Testu-generoa aukeratzeko dugunean esan nahi duguna zera da: hitz egitea testuak erabiltzea dela, baina testu horiek zentzudunak eta egokiak izateko nolabaiteko molde bati, genero bati jarraitu behar diotela. Esan dugu molde horiek ez direla zurrunik, malguak baizik, egoera komunikatiboaren baldintzapean gauzatu beharrekoak. Autore askok testu-generoaren erabileraren abantailak argitu eta didaktika-erreminta emankortzat dutela erakutsi dugu: irakaskuntzan irakats-objektua zehazten laguntzen duelako, ebaluazio-baliabide ezinbestekoa delako eta komunikazio- eta erabilera-aukera muga-gabeen artean nolabaiteko erreferentzia dakarrelako.

Hori bai, irakaskuntzak aukera egin beharra dakar. Ezin da dena, testuera guztiak, irakatsi. Ikusi dugu proposamen zehatzak badaudela. Curriculumek aukera horiek egiten lagundu behar dute, baina gure ustez badago zer zehaztua. Testu-generoa ardatz hartzeak testu horiek ekoizteko zein komunikazio-egoeratan gauzatu behar diren kontuan hartzea dakar: zein solaskide edo hartzaile, zein helburu, zein testuinguru sozial... Aldi berean, irakats-helburuak ere zehaztu behar dira, maila diskurtsiboan, linguistikoa, hiztegiaren/edukiaren mailan... Ekoizpena bera bezain interesgarria gertatzen da, bestalde, ikaste-prozesua; saio didaktikoaren aurretik ondorenera nolako aldaketak gertatu diren ezagutzeak ikasleari eta irakasleari erakusten dio zer ikasi den eta zer ez. Didaktika fidagarria nahi badugu, eta euskararen ahozkoan premia larria dugu, erreminta egokiak behar ditugu. Testu-generoa behar bezala erabiltzea, gure ustez, bide emankorra izan daiteke. Eta ikertu beharra daukagu hala gertatzen dela ziurtatzeko.

Erreferentziak

- Adam, J.-M. (1992). *Les textes. Types et prototypes*. Paris: Armand Colin.
- Anakabe, M. J., Mielgo, E. & Ocio, B. (2013). La construcción de secuencias didácticas: Habilidades profesionales y dificultades en los procesos de formación del profesorado. *Ikastaria*, 19, 221-237.
- Bajtin, M. (1982). *Estética de la creación verbal*. Madril: Siglo XXI.
- Bronckart, J.-P. (1996). *Activité langagière, textes et discours. Pour un interactionnisme socio-discursif*. Paris: Delachaux et Niestlé.
- Bronckart, J.-P. (2005). Les différentes facettes de l'interactionnisme socio-discursif. *Calidoscópico*, 3(3), 149-159.
- Bronckart, J.-P. (2013). Démarches réflexives et formation des enseignants. *Ikastaria*, 19, 345-348.
- Bulea-Bronckart, E. (2015). Les genres et leurs «contre candidats» textuels et discursifs dans l'enseignement du français. *Le Français dans le monde*, 58, 66-74.
- Charaudeau, P. & Maingueneau, D. (2005). *Diccionario de análisis del discurso* (Itzulpena: Irene Agoff). Buenos Aires: Amorrortu. (2002an frantsesez argitaratua).

- Chartrand, S.-G., Émery-Bruneau, J. & Sénéchal, K. (2015). *Caractéristiques de 50 genres pour développer les compétences langagières en français*. Quebec: Didactica, C.É.F. www.enseignementdufrancais.fse.ulaval.ca/helbidetik/eskuratua.
- Coutinho, M. A. & Miranda, F. (2009). To describe textual genres: problems and strategies. In Ch. Bazerman, A. Bonini & D. Figueiredo (arg.), *Genre in a changing world. Perspectives on writing* (35-55. or.). Fort Collins: The WAC Clearinghouse and Parlor Press.
- Diaz de Gereñu, L. (2016). *Jendaurreko kontu-saioa: gertakari soziodiskurtsiboa eta testu-genero berezitua* (doktore-tesia). UPV/EHU, Vitoria-Gasteiz. <https://addi.ehu.es/handle/10810/18372> helbidetik eskuratua.
- Diaz de Gereñu, L. (2017). Eskola eta euskararen biziberritzea: arrakastarako baldintzak aztergai. In J. Goirigolzarri, X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (103-124. or.). Bilbo: UEU.
- Dolz, J. & Abouzaid, M. (2015). Pluralité des genres et singularité du texte: tensions constitutives de la didactique des langues. *Forumlecture.ch*, 2, 1-15. https://www.leseforum.ch/myUploadData/files/2015_2_Dolz_Abouzaid.pdf helbidetik eskuratua.
- Dolz, J., Gagnon, R. & Mosquera, S. (2009). La didáctica de las lenguas: una disciplina en proceso de construcción. *Didáctica. Lengua y Literatura*, 21, 117-141.
- Dolz, J., Noverraz, M. & Schneuwly, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Notes méthodologiques (vol. II, 3^e/4^e)*. Brusela: De Boeck.
- Dolz-Mestre, J. & Schneuwly, B. (1996). Genres et progression en expression orale et écrite. Éléments de réflexions à propos d'une expérience romande. *Enjeux*, 37/38, 49-75.
- Dolz-Mestre, J. & Schneuwly, B. (1997). Géneros y progresión en expresión oral y escrita. Elementos de reflexión a partir de una experiencia realizada en la Suiza francófona. *Textos de Didáctica de la Lengua y de la Literatura*, 11, 77-98.
- Dolz-Mestre J. & Schneuwly, B. (1998). *Pour un enseignement de l'oral : initiation aux genres formels de l'oral*. Paris: ESF.
- Dupont, P. (2016). D'une approche épistémologique du concept de genre à ses implications praxéologiques en didactique de l'oral. *Recherches en didactique du français langue maternelle*, 54, 141-16.
- Gagnon, R. & Dolz, J. (2016). Enseigner l'oral en classes hétérogènes: quelle ingénierie didactique ? *Dossiers des sciences de l'éducation*, 36, 109-130.
- Garcia-Azkoaga, I. & Diaz de Gereñu, L. (2012). Hizkuntzaren garapenerako baliabideak Curriculuma Norbanakoari Egokitzeko (CNE) programetan: sekuentzia didaktikoak aztergai. *Ikastaria*, 18, 117-135.
- Garcia-Azkoaga, I. & Idiazabal, I. (2015). Introducción. In I. Garcia-Azkoaga & I. Idiazabal (koord.), *Para una ingeniería didáctica de la educación plurilingüe* (9-20. or.). Bilbo: UPV/EHU.
- Garcia-Azkoaga, I. & Manterola, I. (2016). Las secuencias didácticas de lengua: una encrucijada entre teoría y metodología. *Calidoscópico*, 14(1), 46-58.

- Idiazabal, I. (2013). Pedagogical-didactic reading of the report Sociolinguistics Cluster. In B. Uranga (koord.), *Talking pupils. The ARRUE Project 2011* (267-270. or.). Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Larringan, L. M. (1993). Euskara batua eta euskalkiak. *Jakin*, 76, 11-40.
- Larringan, L. M. (1998). Testuen analisirako zenbait nozioren kontzeptualizazio bidean. In I. Idiazabal & L. M. Larringan (arg.), *Koherentzia, kohesioa eta konexioa: Testuratzeko baliabideak. Hizkuntzaren azterketa eta irakaskuntza* (47-95. or.). Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU & Arabako Foru Aldundia.
- Martinez Mongay, A. M. (2004). *Nola prestatu ahozko azalpen bat Bigarren Hezkuntzako arlo guztietan*. Iruña: Nafarroako Gobernua. https://www.educacion.navarra.es/eu/web/publicaciones/catalogo/-/asset_publisher/JONi5m8mCym2/content/como-preparar-una-exposicion-oral-en-todas-las-areas-de-secundaria-helbide-tik-eskuratua.
- Miranda, F. & Coutinho, M. A. (2015). Les propriétés différentielles des genres et leurs implications didactiques. *Recherches et Applications*, 58, 17-26.
- Olasagarre, Y. & Mugertza, E. (2015). Euskara bultzatzeko esperientziak Nafarroako irakaskuntzan: motibazioa eta ahozkoa. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 96, 69-102.
- Ortega, A. (2017). Gazteen hiztun-profil berriak eta ideologia. In J. Goirigolzarri, X. Landabidea & I. Manterola (arg.), *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen* (79-101. or.). Bilbo: UEU.
- Ortega, A., Amorrortu, E., Goirigolzarri, J. & Urla, J. (2016). *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.
- Zabala, J. (2018). *Ahozko komunikazioa irakastea. Norabide bat ahozko hizkuntzaren argitan*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza eta Soziolinguistika Klusterra.

Dekretuak

- 24/2015 Foru Dekretua, apirilaren 22koa. 2015eko 127. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 2koa. Nafarroako Foru Komunitateko DBHko Curriculumua.
- 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumua zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. II. Eranskina: Curriculum orientatzailea.
- Bulletin officiel 30, 26/7/2018. Le Bulletin Officiel de L'Éducation Nationale. Cycle 4, Volet 1 : les spécificités du cycle des approfondissements (cycle 4).

Aurkibidea / Índice

- 11 Aitzinsolasa
- 13 Prólogo
- 15 Testu-corpusen informazio morfosintaktikoaren etiketatze automatikoa
hizkuntz ezagutzan oinarrituz: zenbait arazo, hainbat erronka
ITZIAR ADURIZ, JOSE MARI ARRIOLA
- 31 Bertsolaritzaren genealogia subalternoak
LUZIA ALBERRO, K. JOSU BIJUESCA
- 47 Euskal hiztun berri gazteak muda-prozesuan: ekintza-ikerketa baten
behinbehineko emaitzak
ESTIBALIZ AMORRORTU, ANE ORTEGA, JONE GOIRIGOLZARRI
- 63 Garaziko euskararen azterketa diafasikoa
ALEXANDER ARTZELUS MUXIKA
- 81 Berridazketak Sarrionandiaren poesian eta Saizarbitoriaren *Egunero hasten
delako* nobelan: hurbilpen genetiko bat
MIKEL AYERBE SUDUPE
- 95 Somorrostro, mendebaldeko euskararen muga
GOIO BAÑALES, MIKEL GORROTXATEGI
- 113 Euskara sasoian? Euskararen sozializazioa Gasteizko
pilota-elkarte batean
IÑIGO BEITIA
- 127 Euskal hiztun natiboak, ez-natiboak eta hitanoa
GARBIÑE BEREZIARTUA ETXEBERRIA, BEÑAT MUGURUZA ASEGINOLAZA
- 141 Lingüística Histórica: estado actual
LYLE RICHARD CAMPBELL
- 163 Lenguas y sociolingüística en el interior del País Vasco en el siglo XIX:
testimonios del Archivo Zavala
BRUNO CAMUS BERGARECHE, SARA GÓMEZ SEIBANE

- 177 Les verbes psychologiques du basque : typologie et diachronie
DENIS CREISSELS, CÉLINE MOUNOLE
- 195 Testu-generoaren irudikapena eta erabilera ahozkoaren
didaktikan
LEIRE DIAZ DE GEREÑU LASAGA, ITZIAR IDIAZABAL GORROTXATEGI, LUIS MARI
LARRINGAN ARANZABAL
- 209 Zentsura-ikasketak gaur egun: aplikazioa euskal literaturan
AMAIA ELIZALDE ESTENAGA
- 223 Azentuazioaren eremu sintaktikoak mugatzen
ARANTZAZU ELORDIETA
- 237 Sintaktikoki etiketatutako euskarazko corpus historikoa
eraikitzen
AINARA ESTARRONA, IZASKUN ETXEBERRIA, RICARDO ETXEPARE, MANUEL
PADILLA-MOYANO, ANDER SORALUZE
- 253 Ahozkotasunaren didaktika ikuspegi dialektikotik abiatuta
AINHOA EZEIZA, JAVIER ENCINA
- 267 Ahozko euskararen erabilera eskolan: gako zenbait irakasleen prestakuntzarako
INES M. GARCIA-AZKOAGA, OLATZ BENGOETXEA, JOSUNE ZABALA
- 283 El corónimo navarro *Salazar / Zaraitzu*: origen y desarrollo de su doble
denominación
ROBERTO GONZÁLEZ DE VIÑASPRE
- 295 *Fontes Linguae Vasconum*: orígenes y documentos para una Historia
del Euskara
JOAQUÍN GORROCHATAGUI
- 315 Euskal literatura itzuliaren historiografia bateraturantz
MIREN IBARLUZEA SANTISTEBAN
- 329 Basque among the world's languages: a typological approach
IVÁN IGARTUA
- 351 Familias vascohablantes: propuesta de definición desde la socialización
lingüística
PAULA KASARES
- 363 Formation linguistique de basque aux enseignants, pour un enseignement
bilingue à parité horaire au Pays Basque Nord
BEÑAT LASCANO
- 375 Eñaut Etxamendiren obra narratiboaren ekarpena euskal poetika erruralari
ITZIAR MADINA
- 391 Erdaretarako literatur itzulpena: zeharkako eta zuzeneko itzulpenaren arteko
muga lausoa
ELIZABETE MANTEROLA AGIRREZABALAGA

- 405 Ahozko euskararen irakaskuntzarako irakasleen prestakuntza: berrikuntza didaktikoa eta soziala?
IBON MANTEROLA
- 421 Enkarterriko PI-(h)aran/(h)uri motako euskal toponimoak
MIKEL MARTÍNEZ ARETA
- 437 Diachronical hypotheses accounting for synchronic variation: the case of the Basque particle *ote*
SERGIO MONFORTE
- 453 Jardueraren azterketa irakasleak prestatzeko bide: debatearen ikas-irakaskuntzaren adibidea
AROA MURCIANO EIZAGUIRRE, ARANTZA OZAETA ELORTZA
- 467 Hausnarketa zenbait euskal literatura-ikerketez
MARI JOSE OLAZIREGI
- 485 Ahozko euskara *Kolegioko ikastresna* ikasmaterialean
ARGIA OLÇOMENDY
- 501 Euskararen postposizioak
JAVIER ORMAZABAL
- 517 Hitz-ordenaren eragina zenbait ezaugarri gramatikalen erabilera-maiztasunean
LUIS PASTOR
- 533 Differential D-marking on proper names? A cross-linguistic study
IKER SALABERRI
- 547 Externalization and morphosyntactic parameters in Basque
HISAO TOKIZAKI
- 561 XIX. mendeko Debagoieneko testuez zenbait argitasun: egiletasuna eta iturriak
OXEL URIBE-ETXEBARRIA
- 579 Euskarazko perpausik gabeko azpikonparazioak
LAURA VELA-PLO
- 595 Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran -(iz)amo duten leku-izenak
LUIS MARI ZALDUA

Izenburua/Título:

Fontes Linguae Vasconum 50 urte. Ekarpen berriak euskararen ikerketari/Nuevas aportaciones al estudio de la lengua vasca

© Argitaratzaileak/Editores:

Ekaitz Santazilia, Dorota Krajewska, Eneko Zuloaga, Borja Ariztimuño

© Egileak/Autores:

Itziar Aduriz, Jose Mari Arriola, Luzia Alberro, K. Josu Bijuesca, Estibaliz Amorrortu, Ane Ortega, Jone Goirigolzarri, Alexander Artzelus Muxika, Mikel Ayerbe Sudupe, Goio Bañales, Mikel Gorrotxategi, Iñigo Beitia, Garbiñe Bereziartua Etxeberria, Beñat Muguruza Aseginolaza, Lyle Richard Campbell, Bruno Camus Bergareche, Sara Gómez Seibane, Denis Creissels, Céline Mounole, Leire Diaz de Gereñu Lasaga, Itziar Idiazabal Gorrotxategi, Luis Mari Larringan Aranzabal, Amaia Elizalde Estenaga, Arantzazu Elordieta, Ainara Estarrona, Izaskun Etxeberria, Ricardo Etxepare, Manuel Padilla-Moyano, Ander Soraluze, Ainhoa Ezeiza, Javier Encina, Ines M. Garcia-Azkoaga, Olatz Bengoetxea, Josune Zabala, Roberto González de Viñaspre, Joaquín Gorrochategui, Miren Ibarluzea Santisteban, Iván Igartua, Paula Kasares, Beñat Lascano, Itziar Madina, Elizabete Manterola Agirrezabalaga, Ibon Manterola, Mikel Martínez Areta, Sergio Monforte, Aroa Murciano Eizaguirre, Arantza Ozaeta Elortza, Mari Jose Olaziregi, Argia Olçomendy, Javier Ormazabal, Luis Pastor, Iker Salaberri, Hisao Tokizaki, Oxel Uribe-Etxebarria, Laura Vela-Plo, Luis Mari Zaldua

© Argitaratzailea/Edita:

Nafarroako Gobernua/Gobierno de Navarra

Kultura eta Kirol Departamentua/Departamento de Cultura y Deporte

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia/Dirección General de Cultura-Institución Príncipe de Viana

Lanak adituek berrikusi dituzte, itsu bikoitzeko sistemaren bidez/Los trabajos han sido revisados por pares doble ciego.

Diseinua eta maketazioa/Diseño y maquetación:

Kö estudio

Imprimaketa/Impresión:

Linegrafic

ISBN: 978-84-235-3561-3

LG/DL: NA 1438-2020

Sustapena eta banaketa/Promoción y distribución:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Funtsa/Fondo de Publicaciones del Gobierno de Navarra

Navas de Tolosa, 21

31002 Iruña/Pamplona

Tel.: 848 427 121

fondo.publicaciones@navarra.es

<https://publicaciones.navarra.es>

Fontes Linguae Vasconum 50 urte.

2019an 50 urte egin zituen Nafarroako Gobernuaren Vianako Printzea Erakundeak argitaratzen duen *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta* euskal hizkuntzalaritzako aldizkariak.

Horren gorazarre, liburu honek gaur egungo euskal hizkuntzalaritza- eta literatura-ikerketan zertan den erakutsi nahi du. Eskarmentu handiko ikertzaileek eta belaunaldi berriek bat egin dute argitalpen honetan, besteak beste, dialektologia, hizkuntzaren didaktika, filologia, gramatika teorikoa, hizkuntz tipologia, hizkuntzalaritza historikoa, itzulpengintza, literatura, onomastika eta soziolinguistika hizpide dituztela.

La revista de lingüística vasca *Fontes Linguae Vasconum: studia et documenta*, publicada por la Institución Príncipe de Viana del Gobierno de Navarra, cumplió 50 años en 2019.

En homenaje de la efemérides, este libro pretende dar cuenta del estado actual de la investigación en lingüística y literatura vascas. Investigadores de gran trayectoria y nuevas generaciones se reúnen en esta publicación para tratar, entre otros temas, sobre dialectología, didáctica de la lengua, filología, gramática teórica, tipología lingüística, lingüística histórica, traducción, literatura, onomástica y sociolingüística.

ISBN: 978-84-235-3561-3



9 788423 535613